



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

PEOI BALIOANITZA LANPOSTU ESKAINTZA

Adunako Udalak, behin-behinekoz eta lanpostuari dagokion plaza definitiboki bete bitartean, peoi balioanitzari dagozkion eginkizunetarako postua betetzeko prozesua abiatu du, hurrengo lerroetan azaltzen diren baldintzen arabera:

Ezinbesteko baldintzak

- ADINA: 18 urte beteta.
- TITULAZIOA: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza titulua edo baliokidea.
- GIDABAIMENA: B1.
- HIZKUNTZA: 2.H.E.
- Lanpostuaren betekizunak betetzeko gaitasun funtzionala.

Baloratzekoak:

- Antzeko postuetan lan esperientzia.
- Euskara ezagutza maila (3.H.E. / EGA).
- "B" Gidabaimenetik gorakoak.
- Lanpostuaren funtzioekin zuzeneko harremana duten ikastaroak.
- Elkarrizketa.

Lan Baldintzak:

- Lanaldia: OSOA.
- Orduategia: GOIZEZ. – Astelehenetik ostiralera.
- Kontratu mota: Laborala.
- Iraupena: Behin-behinekoa. Lanpostua behin betikoz bete bitartean.
- Hileko soldata gordina gutxi gorabehera, eurotan: 2.000

Eskaerak:

Dagozkion administrazio zein lan arauak betez, eta inguruko herrietan egon zitezkeen peoi lan-poltsak agortu ostean, LANBIDE bitartez abiatu dugun hautaketa prozesuan parte hartzera gonbidatu nahi ditugu baldintzak betetzen dituzten eta lanpostuagatik interesa duten herritarrak.

Eskaerak nora bideratu: **LANBIDE TOLOSA, otsailaren 14a baino lehen.**

Informazio gehigarria: Adunako udaleko web orrian.

Adunan, 2025eko otsailaren 5ean,

ALKATEA

Cristina Rodriguez Menicute